




# Zerbitzu ekosistemikoen identifikazioa eta sailkapena


Zuhaitzaren eta bere ingurunearen funtzio nagusiak eta paisaiarekin dituen lotura eta erlazioa 1. bloke pedagogikoan identifikatu ondoren, eta basoek behar duten plangintza eta kudeaketa jasagarria 2. bloke pedagogikoan azaldu eta gero, 3. bloke pedagogikora iristen gara, gure basoek sortzen dituzten produktu eta zerbitzuak aztertzeko; produktu eta zerbitzu horiek naturalak eta berriztagarriak dira, eta, hortaz, haien kudeaketa eta erabilera sustatzen ditugunean BASO-BIOEKONOMIA izendatu dugun ekonomia jasagarria sortzen ari gara.

Produktu eta zerbitzu horiek ZERBITZU EKOSISTEMIKOAK deitzen dira, eta NATURALAK izatearen abantaila dute, naturak berak sortzen dituelako, baita BERRIZTAGARRIAK ere izatearen abantaila ere, zeren agortu beharrean birsortu eta hazten baitira berriro.

Zerbitzu ekosistemikoak honela sailkatzen dira:



**Zerbitzu ekosistemikoen eskema**



zerbitzu ekosistemiko batzuen irudien murala



## **Bioekonomia** ▯ **baliabide berriztagarrietan oinarritutako ekonomia** Zerbitzu ekosistemikoen identifikazioa eta sailkapena

**HORNIDURA-ZERBITZUAK.** Hornidura-zerbitzuak ekosistema batek eskaintzen dituen ondasun eta lehengaiak dira. Honela egituratu daitezke:

ZURETIK datozenak

- Zura (egurra)
- Kortxoak
- Erretxina

BESTE BATZUETATIK datozenak

- Ehiza eta arrantza
- Larreak
- Mikologia
- Erlezaintza
- Basa-fruituak, sendabelarrak eta belar aromatikoak

**ERREGULAZIO ZERBITZUAK.** Ekosistemen funtsezko zerbitzuetatik eratortzen diren eta tokiko zein maila globaleko inpaktu jakin batzuk murrizten laguntzen dutenak dira.

- Uraren kalitatea
- Lurzoruaren kalitatea
- CO<sub>2</sub>aren atzipena
- Higaduraren kontrola
- Biodibertsitatea

**ZERBITZU SOZIOKULTURALAK.** Aisialdi eta jolasarekin edo kulturaren alderdi orokorragoekin zerikusia duten zerbitzuak dira.

- Paisaia
- Aisialdia